



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-09-24**

VIURTEA 1.516.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. GARZIA

MAITE BIURRARENA ARTISTA

«Beharrezko dudan zerbait da sormena; asko laguntzen dit»

LEITZA Zenbait erakusketa jarri ditu artista leitzarrak; Leitzan ere erakutsi zituen bere lanak, eta «jendeak ezustekoa hartu zuen» 4-5

Jende ugari izan da mendi martxetan eta maratoi erdian

LEITZA-ARESO Plazaola Partzuergoak eta Kirol Mankomunitateak antolatuta, azken bi asteburuetan izan dira hiru ekimenak 7

Araxes paper-fabrika monumentu izendatu ala ez aztertzen ari dira

TXARAMA Fabrikaren biziraupena ziurtatzeko ezinbestekoa dela izendapena dio AVPIOPK 6

Bide heziketaz gehiago ari dira ikasten eskualdeko gaztetxoak 5

Hainbat diru laguntza Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko 2



4 sarrera pare

zozketatuko ditugu!

deitu eta eskuratu

Eskubaloi
partida



berabera
EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA





Txalaparta jotzen ikasteko aukera izango da besteak beste, Gaztedia sailak antolatutako ikastaroetan. E. EZEIZA

Gazteentzako ikastaroak, poltsikora egokituta

Tolosa » Bost arlo ezberdinetan trebatzeko aukera izango da; gainera, beraiek proposatu dituzte eskoletako gaiak.

ERREDAKZIOA

Ikasturtea hasi den honetan, Tolosako Udaleko Gazteria sailak hainbat ikastaro antolatu ditu, hauen interes eta nahietan oinarrituta. Saio guztiak Kultur Etxean izango dira, asteen zehar, urritik urtarilerar bitartean.

Matrikulak 10 euro balio ditu eta lehentasuna tolosarrek izango dute. Izen-ematea Gazte informazio bulegoan egin daiteke, 09:30etik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara bitartean. Ikastarorak 13-30 urte bitarteko gazteentzako dira, baina plazaren bat libre geratuz gero, adin tartetarik kanpo geratzen direnek ere parte hartu ahal izango dute.

Eskaintza zabala

Bost ikastaro ezberdin antolatu dituzte ikasturte honetarako. Musikarekin lotutako ikastaroak bi dira.

Alde batetik, saltsa eta merengearena. Hau astelehenetan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Bestea, txalapartarena da; hau astelehen eta asteartetan izango da, 15:00etatik aurrera. Beste bi ikastaro mar-goekin lotuta daude. Body painting egiten ikasteko, interesatuek, asteazkenetan, 18:30etik 20:30era bitartean izango dute aukera. Makiillatzen ikasi nahi dutenek berriz, asteazkenetan, 18:30etik 20:30era bitarte. Azken ikastarora orratz lanena da. Hau ostegunetan emango dute, 19:00etatik 20:30era bitartean.

Alde Zaharra birgaitzeko hainbat laguntza izango dira

Tolosa » Erretengibel, Tolosako Udal elkarteak eskainiko ditu; honen inguruko informazioa, liburu batean izango da.

ERREDAKZIOA

Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko Hirigintzako Sozietateak, Alde Zaharreko eremuan eskaintzen dituen diru-laguntzen laburpen bat azaltzen duen liburuxka argitaratu berri du.

Eraikuntza eta etxebizitzaren birgaipenerako diru-laguntzen ohiko lerroez gain, liburuxka honek Alde Zaharreko lokaletan ihar-duera komertzialak ezartzeko diru-laguntzak kontuan izan ditu. Era berean, azken urteotan Alde Zaharreko zenbait eraikuntzetan gertatu diren sute kopurua gutxitzearren, beste bi diru-laguntza berri ezarri dira.

Alde batetik, Alde Zaharreko eraikuntza nahiz lokal komertzialetan su-itxalgailuak instalatzeko diru-laguntzak aurkitzen dira; hauen helburua, Alde Zaharreko eraikuntzek sua itzaltzeko neurri egokiak izatea litzateke. Beste alde batetik, 25 urtetik gorako instalakuntza elektrikoaren berrikuntzara-

ko diru-laguntza berri bat ezarri dute, izan ere instalazio elektriko zaharkituak honelako gertakarien eragile izan baitira.

Itxalgailuen instalakuntzarako, diru-laguntzen zenbatekoa instalazio kostuaren %80 izango da, BEZa salbu eta elektrizitate instalakuntzen berrikuntzarako, laguntza %40a izango da, BEZa salbu. Azken laguntza hauek Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) ematen dituen laguntzekin bateragarriak dira eta erakunde honek ematen dituen diru-laguntzak eskatzea izango da baldintza.

Egun Erretengibelek eskaintzen dituen laguntzak honako hauek dira: birgaitze obrei dagozkionean. Elementu komunetan, obren kostuaren %15etik %25era bitartean. Pribatibotetan, %7tik %30era eta merkataritzarako lokaletan, %16tik %25era bitartean.

Su itxalgailuen instalakuntzak egiteko asmoa dagoen kasuetan, instalazio kostuaren %80a ordainduko da. Azkenik, elektrizitate instalazio zaharrak berritzeko diru-laguntzak, egindako inbertsioaren %40arenak izango dira.

Bestalde, hutsik dauden lokaletan enpresak sortzeko laguntzak emandgo dira, birgaitzeko nahiz alokairurako.



Euskara ikasi nahi dutenen bila dabilta

EUSKARA » Sheriff bat euskaltegiaren inguruko informazioa banatzeko ibili zen atzo Tolosa eta Ibarako kaleetan. Wanted du izena Gipuzkoako Udal euskaltegien aurtengo komunikazio kanpainak. Honen helburua da kalera ateratzea eta euskaltegiko ikasleen profila duten pertsonengana hurbilduz, harremanak gerturatzea. Sheriff-aren esanetan, «harrera ona izan du herritarrengan». E. E.

Laburrak

Zaldi raid lasterketan izena emateko azken aukera

BEDAIO » Igandeko Zaldi Raid lasterketan parte hartu nahi izanez gero, oraindik ere aukera dago, bihar arte. Horretarako www.bedaio.com, 620 19 91 66 telefono zenbakia edo bedaioerota@hotmail.com erabili daitezke. Momentuz 25 zaldunek eman dute izena: hauen zaldia 09:00etarako Bedaion egon beharko dira, albairen kontrola pasatzeko. 09:45ean probaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Mantentze gimnastikako ikastarora laster hasiko da

IKAZTEGIETA » Udalak mantentzeko gimnastika ikastarora antolatu du. Hau, kiroldegiko gimnasioan izango da, astearte eta ostegunetan, 18:45etik 19:45era. Izena emateko azken eguna urriaren 3a izango da. Honetarako, interesatuek udaletxera jo beharko dute. Ikastarora urriaren 7an hasiko da. Hiruhilabete bakoitzeko 45 euro ordaindu beharko dira. Bestalde, taldea osatzeko, gutxienez zortzi lagunek eman beharko dute izena.

Hilberria

† GREGORIA ARIZETA ZINKUNEGI

Atzo hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.
-Goianbego-

EZ AGURRIK, EZ ADIORK, GERO ARTE BAIZIK.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela GAUR, IRAILAREN 24-AN, arratsaldeko 19:00etan, Aitako San Esteban parroikia elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Oharra: Gorpu Zarauzko beilategian dago.



ZARAUTZ
2008ko
irailaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Bide heziketa lantzen ari dira Mugikortasun Astearen baitan, antzerkiaren bidez

Mugikortasun Astea » Txerriki antzerki taldea emanaldiak egiten ari da aste guztian zehar hainbat ikastetxeetan.



Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan atzo eman zuten antzeziana. HITZA

IMANOL GARCIA

Mugikortasun Astearen baitan, Ernioaldea Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietan bide heziketa jorrotzen ari dira eskoletan antzerkiaren bidez. Txerriki antzerki taldea da emanaldiak egiten ari dena Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta. Gorka Zubeldia eta Edurne Agirrezabalaga dira antzezleak.

Antzerkiaren ardatzak bide heziketa, mugikortasun iraunkorra eta ingurumena dira. Bertan bi udaltzainek parte hartzen dute: bata hasiberria dena eta bestea urte asko daramatzana lan horretan. Hitzaldi bat ematera joaten dira eskola batera. Antzezlaren arduraduna den Alex Tellok azaltzen duenez, «udaltzain hasiberria asko dakielakoan aritzen da, harro-harro, baina benetan ez daki asko». Obraren zehar astakeriak esaten doa eta hasieran haurrak berarekin identifikatzen badira ere, pixkanaka konturatzen doaz zen-

tzuz jokatzeko duen udaltzain nagusia dela. Antzezlanaren prestakuntza dago haurrek bertan parte hartu dezaten.

Bizikletan ibiltzen ikasteko

Ernioaldeak antolatutako beste ekintzetako bat bizikletan ibiltzen ikasteko helduentzako ikastaroa da. Kalapie elkarteak ematen du eta bertako kidea den Gerarta Arotzenak azaltzen duenez, «bizikletan ibiltzen ez dakienari edo garai batean zekiena baina orain segurtasun falta duenari zuzenduta dago». Belgikan sortutako metodo bat erabiltzen dute eta egiten dituzten ikastaroen bukaera

%90ek pedalei emateko gauza izaten dela azaltzen dute.

Ikastaroan izena emateko azken eguna gaur da eta 656 72 8085 telefono zenbakian eman behar da izena. Guztira bost saio dira, bakoitza ordu eta erdikoa. Parte-hartzaileek 35 euro ordaindu behar dute, udalek matrrikularen erdia diruz laguntzen baitute.

Bestalde, Villabonan egingo den bigarren eskuko azokarako materiala uzteko azken eguna gaur da. Materiala uzten duen pertsonak jarri behar dio prezioa eta saltzen bada dirua jabeari emango zaio. Saltzen ez bada eraman zen bezala itzuliko da.



Zuk-Zukekin lurraldeak ezagutzuz

BIDEGOIAN » Bidegoiango Kultur Asteari ekiteko Zuk-Zuk Jaunaren alfabeto antzerkia izan zuten atzo Bidaniko frontoian. Munduko hainbat lurralde ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Gaur, berriz, Belloso eta Bengoetxea pilotarien mahai ingurua izango da balioanitzeko gelan 19:00etan. Bihar janari makrobiotikoari buruzko hitzaldi interesgarria izango da balioanitzeko gelan, 19:00etatik aurrera. N.URBIZU

Zentzugabeko umorea Atxagaren liburu berrian

ERREDAKZIOA

Bernardo Atxaga idazle asteasuarra zentzugabeko umorea jorrotuko duen nobela berria ari da prestatzen. AEBtan 10 hilabete egin ditu *Zazpi etxe Frantziar* nobela lantzen eta atontzen.

Gizakiaren alde zital eta txarre-na islatu nahi du nobela honetan,

«baina umorea erabiliz». Idazleak gaineratu duenez, «orain arte prosa idatzi ditudan liburuekin ez du zerikusirik izango». Eleberria Kongon dago kokatua, XX. mendean hasieran, Afrikaren alde hori belgikarren erregea zen Leopoldo II.aren jabetza pribatua zenean.

S Soka motzean

«Parekatu egin dira liburuen eta DVDen mailegu kopuruak»

ARANTZA ZABALA »

Zizurkilgo liburuzaina

I. GARCIA

Arantza Zabalak (Zizurkil, 1963) Atxulondo kultur etxean egiten du bere lana.

Zer osasun du liburutegiak?

Hain herri txikia izateko nahiko osasun ona dugu mailegutza aldetik, baina gehiegi mailegatzeko dira DVDak.

Beraz, liburuak edo DVDak mailegatzeko dira gehiago?

Estadistikan ikusten da parekatu egin dela.

Zein da maileguan gehien ematen duena?

Argi eta garbi, emakumeak.

Eta adinari begiratuz gero?

Helduak esango nuke. Bestalde, somatzen dut helduek haurrentzako DVD gehiago hartzen dituztela eta beraz ipuin gutxiago.

Zein liburu duzu gustukuen?

Hainbat fase pasatu ditut: txikitik, abenturazkoak; nerabetan, egunkariak; bolada izan nuen polizia-nobeletan, gero fase intelektuala izan nuen, Simone de Beauvoierek idatzitakoak adibidez, eta egun, adinarekin, denetarik irakurtzen dut. Esaterako, Henning Mankellen liburuak asko gustatzen zaizkit.

Eta gehien eragin dizuna?

El amor en los tiempos del colera, Gabriel Garcia Marquezena eta *El país bajo mi piel* Gioconda Bellirena.



I. GARCIA

Laburrak

Loatzo musika eskolaren bilera, gaur udaletxean

ADUNA » Loatzo musika eskolak bilera antolatu du gaurko, 17:30ean Adunako udaletxean. Herrian aritzen diren ikasleen gurasoei zuzendutako bilera da.

Urriaren 1ean zabalduko da berriro udal liburutegia


ANOETA » Udal liburutegia urriaren 1ean zabalduko da, ohiko ordutegian: 16:00etatik 19:30era internet erabiltzeko eta 17:30etik 19:30era gainontzeko zerbitzuetarako.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Furgoneta.** Peugeot Partner diesela. Egoera onean. 649 51 09 41.

■ **Sukaldea.** Bitrozeramikako sukaldea, labe eta guzti. 250 euro. Deitu: 600 89 02 10.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Elkarrizketa

MAITE BIURRARENA Artista



«Pertsonalki sormena behar dudan gauza bat da, asko laguntzen dit»

Leitza » Biurrarenak bere lanaren zenbait pieza Kultur Astearen baitan egindako erakusketa batean ikusgai jarri zituen, Leitzan lehenengo.

zituena eta izena eman nuen. Orduan 10 bat koadro egin nituen. Politikoki oso marraztu izan dut eta Patriarekin olioarekin pintatzen hasi nintzen. **Orain egiten duzuna nola definituko zenuket?** Nik use dela material ezberdinak erabiltzea eta komposizio bat egitea, ideia bat transmititzeko. Niri ere zaila egiten zait egiten dudana definitzea, diseinua da baina ez da pintura, baina pintura izan dezake edo fotografia. **Eszkultura ere egiten duzu?** Paisaian aurkeztu nuen lehengo pieza eskultura bat izan zen, kristalezko edontzi-azpiak dira, baina marrazkia ere badute, pikta bat ezberdinak dira. Gero Paisaiala egin nuen arren pieza da ez ezibizitzari buruzkoa. Arratoiaren zepa erabili nuen eta hipoteka lanaren ingurukoa izosten zen

eta pampin bat egin nuen, lepoa hartuta zuela eta beste pieza erdian altu bat ziren txuri beltzean, lehoiki ikusten duzuna azaltzeko. **Erakusketa asko egin dituzue?** Ez, asko ez. Pasaioa urteroko aurkezten naiz 2004an hasi nintzen zerevitik, taldekoa da. Bakoiak 2 pieza egin behar dira. Gero Hondarribiko udalarekiko marcoaren 8an egiten da emakume inguruko erakusketa eta hori duka 3 urte hasi nintzen. Lehenago urtean 4 nesken artean elkartu ginen eta gure kabuz zer bait egitea erabaki ginen. Orduan **Meninak** egiten hasi nintzen eta karkara ginenen, gero beste 3 neske gehiago animatu ziren eta emakumearen gaia jorratzea erabaki ginen. **Nola **Menin**ekin hasita nongoen horriekin jarraitu nuen eta orduan bai eta zaitzükigia erakusketa baten.** Elkarre bat sormen eta Donostian 2 tokitan izan gara, gero Ondarrutan eta Iruñen. **Erraza da erakusketa egitea?** Ez, modurik sulu behar duzu. Batzuen kontakatu hori zaitzükigia zaitzükigia. Kultur Etxetara joan nahi baduzu, adibidez, katalogo bat eraman behar duzu, curricula eta zenbait tokitan, Donostian, estera, low soilik erakustaskeztaraz. Ditzue. Geolekua nahiko ongi dago. Beste zenbait lekutan ez du horrela funtzionatu. Normalean katalogoa erakutsi behar duzu, gero arduradun batekin hitz egitea gehienez dena bete dagoeko esaten ditute eta detra-ko edo eskakizun bat egiteko. **Zurmuñu behar zara, bera?** Bai, normalean bai. Erroreana izatean da tabernetan erakusketa jartzea, baina niri horretarako tabernetak ez zaitzükigia gustatzen. Zenbait pieza izan iratu egin ditazue, argizkükik behar bada ez, kristal baitu, baina gero ez dakit jendekuek ghegi ere gartzen diene, nik ere ez baitu hori egiten. **'Meninena' orain arte egin duzun lanik garrantzitsuenak?** Nik use balez, **Meia nola bururatu zitzaizun?** Erantzuzko izeneko obratik datorki dena. **Erantzuzko 2 obra toki-ko ezarritako, bat da **Meninena** koadroa, Hori abiapuntua da. **Men**ineta beti gustatu izan zaitzükigia, eta gero jakin nuen mopekotasuna**

esan nahi zuela, portugalarrak hitz bat da emakumeak beti besteen mopekotasuna, gaur egun oraindik ere bai. Velazquezen koadroa hartu nuen eta txuri beltzean jarri nuen. Koadro horretan estamentu guztiak azaltzen dira: familia, gurasoak, bikotea, autore bera epailekoa da niretzako, emakumeak ere azaltzen dira, nekato bat, elbarrik, bikote bat, baita aguzai bat ere. Obra barrokkoa da, karga asko du eta infanta Margarita hartu nuen eta koadro hortatik aterako bana bezala egin nuen. **Eta bigarren zatian zer azaltzen du?** Gero beste ate bategi aterako bait bezala egiten dut, baina antzetzükigia berri horretan gaur egungo emakume bat da, eta antzetzükigia txuri baten agertzen da, betetzükigia dago. Azken finean gaur egungo emakume bat da txuri beltzean, ez zaidalako axola emakume nolako den eta soineko arrosa bat da. **Hori beraz 'Meninak' seriearen abiapuntua da?** Bai, hortik menina ezberdinak egin nituen, egoera ezberdinak

azaltzeko, meninarean soinekoan oinarrituz. **Testuak ere erabili dituzue?** Bai, baina ez dira nireak, Alessandra Bocchetti eta Lila Downs taldearenak dira. **'Meninak' seriea zenbat koadro osatzen du?** Bederatzi. Leitzan 7 jarri nintzen Kultur Astean, bat galeria batean baitur, eta besteak ez nahi gehiegi kanbertzitzen. **'Menina' bakoitzak esanahi ezberdina dauka, bera?** Bai, bat izana da. Honetan bikote bat azaltzen da eta emakumea itsas da eta senar arduradun arai zaio. Muga gainditu ditezükigia azaltzeko modu bat da. Beste batean emakume soldadu bat azaltzen da eta kamufajeari buruzkoa da. Badirudi ama zarenen ez zara

Orain, berria, pintatzen hasi nahi konuke. **Aurrera begira telebista honetan jarraitzeko asmoa duzu?** Momentuz telebista honetan lan egiten jarraituko dut, nik usie behar dudalako objektuak lan egitea gero pisatuko bat dena nahastu. Pintatzearen alio nahi. Baina pintura horri adrean agian egunkari bat jarriko nioke. **Oberaren bat salduz gero beste bat egiten duzu?** **Meninena** kasuan ez. Gauza bera eringo nuke egiten. Estilok behar da bai. Adibidez Ciudad de Juarez bezalako beste bat eringo nuke egiten, bakarra da. Hori okerrena da. Baina beste koadro batzuen kasuan ale bat baino gehiago egiten ditut. **Honatik bizitzea erraza da?** Nik 2 pieza saldu ditut. Jendeari gustatzi, gustatzen zaiu, baina gero ereteko orduan... baina zuri kostatu egiten zaiu, botez ere inportatza eramatean duzuenen zere bait egitea. Diseinutik diru izuri txiki bat hortzen dut: kartelak egiten ditut, karakopak, panakak, txurak, publikitate... Nik bestela eskola batean egiten dut lan administratzen. Lan honetako denbora ematen di eta beste gaitzak egiteko.

Sormena zuretzako zer da? Pertsonalki nahik behar dudana gauza bat da, niri asko laguntzen dit naitzen modurako. Ez da droga bat bezala, baina on egiten dit, lasaitu egiten nait, zentratuago egiten nait, nahiz eta batzuetan ere estresatzen zaren. **Ze transmittitu nahi izaten duzu?** Hori azaltzen ez da erraza. Azkenean nik usie bakoitzaren bihepak nik ditek, buruan daukazuna ezarria. **Ez ditue esan oso pertsonalak direla, nahiz eta gai sozialak landu?** Bai, gai sozial bat landu arren ezin dit inpersonalki egiten. **Jendek zure lana ikusita ze erantzükigia izatea gustatuko litzazükigia?** Gukinoko itaioa zabaltzükigia gabe. Gero, zer bait egiten duzuenen buruan zer bait duralako da eta hori transmititu nahi duralako, baina gortetzen da transmisio hori baturan ez dela egiteko. Batzuetan gauza gehiegi jartzen dituzu pieza baten, jendek uletu ahal izateko. Azken finean zer bait komunikatu nahi duzu, eta behar bada ez dute ulertzen nik eman nahi dudana, baina behintan behin sententzia batekin joatea gustatzen zait, ez bakarrik estetika adertik, -burukitu egiten nait usie esateko -hota tradizio zaila. Horretako zer bait. **Asko egiteko duralako sentitzen duzu oraindik?** Asko ikusita, asko duralako... nire amesa hau ez baztertzea izango litzateke, nire aukeren barruan jarraitzea. Diseinua egin nucean pentsatzen nuen gero ez niela ezere egiten, eta horrek behar du ematen dit, eta ez nuke guzti hau usie nahi, mesekegaria zaidalako.



ETHEBIZITZA' EDO BURUTIK BEHERA HARTZEN ZAITZEN ZEPORA

Maite Biurrarenak urtero Pasaioa 12 zentimetro erakusketan hartzen du parte eta eskultura hau bertan aurkeztu duen ezberniko lana da. Euzko biztanen gisa bolaro dabilako kontuan izan eta hipotekak nola dauden ikusita, asko niritzükigia ezberniko ordez, erortsa etxeraren mopeko bihurtzen da. Eskultura honetan irudi hori argi eta garbi ikus daiteke. Arratoiaren zepa erabili zuen Biurrarenak ideia hori transmititzeko. Goian, ezkerretara, telebista hori behar bada bota dabilen hipoteka lanaren ingurukoa azaltzen da. Armatzako, 2 elementu horien artean giza ikus azaltzen da, pampin bat edo Biurrarenak azaldu duen bezala, menina bat, emakumezkoa, lepoa erabat hartuta da, zepoan erabat lotuta dago. Erakusketa honetan jarri zuen beste lana edizio altu bat zen, txuri beltzean, zuzuk lehoiki ikusten duzuna adierazteko. Piza ironikoa bezala definitu da egileak.



MAITE BIURRARENA ETA VELAZQUEZEN 'MENINAK', 4 METRO ONDORREN



'Meninak' Maite Biurrarenaren usiez, orain arte egin duen lanik garrantzitsuenak da. Serie bat da, hau da, 9 koadroz osatuta dago, eta ezkerrean azaltzen dena horietako bat da. Alessandra Bocchettiaren poema bat azpian dugu. **9 menina horiek Biurrarenak lehenago egin zuen koadro bategi ditek. Erantzuzko izenekok, goian ikus daitekeena. Erantzuzko, era beran, 2 zatitan banatuta dago, eta ezkerrean Velazquezek egin zuen koadroan gizaaren Biurrarenak bere interpretazioa egin zuen eta hortik abiatuta 9 meninez osatutako seriea egin zuen. **Menina** bakoitzak egoera bat izaten du, eta horretarako Biurraren elementu ezberdinetaz baliatuta da, bestak beste, hiesa, sexualitatea, genero indarkeria eta emakumearen egoera jorratu dituzükigia.**

Mendiz, bizikletaz edo korrika, baina jende ugari Leitza eta Aresotik barna

Kirolak » Plazaola Partzuergoak eta Kirol Mankomunitateak antolatu zituzte hiru ekimenak.

tzunarekin. «Eguraldi txarra izan arren, 100 lagun inguru elkartu ziren Areson». 18 kilometroko ibilbidea egin ondoren, oroigarriak eta sariak jaso zituzten mendizale guztiak.

ASIER IMAZ

Azken bi asteburuetan kirol ekitaldi ugari ospatu dira Leitzaldean. Lehenik Areson I. Mendi Martxa antolatu zuten, eta iragan igandean Leitzan, berriz, VI. Mendi Bizikleta Martxa eta III. Maratoi Erdia.

Hiru ekimenak Plazaola Partzuergoaren eta Kirol Mankomunitatearen eskutik antolatu dituzte. Eta hiru ekimenak burutu ostean, deigarria suertatzen da hirurek izan duten parte-hartze kopuru altua, 100 mendizale, 156 korrikalari eta bizikletan 150 lagun inguru aritu baitira.

Aresotik barna

Antolakuntza «gustura» agertu da Mendi Martxak izandako eran-

Plazaolan barna

Eguraldi bikaina izan zuten Maratoi Erdian eta Mendi Bizikleta Martxan irteerako lagunek igandean. «Giro bikaina» egon zen partaideen artean antolazaitileek esan dutenaren arabera, eta parte-hartze handia, zauriturik ez zela egon ere aipatu dute.

» SAILKAPENA

Gizonak

- | | |
|------------------------|---------|
| 1. Arkaitz Letamendi | 1.12.35 |
| 2. Asier Urdanpilleta | 1.12.35 |
| 3. Jose Manuel Otermin | 1.13.22 |

Emakumeak

- | | |
|------------------|---------|
| 1. Ixar Zugasti | 1.34.10 |
| 2. Isabel Dumall | 1.35.55 |
| 3. Ana Alzugarai | 1.37.53 |



Goian, Leitzako geltokian korrikalariak zain. Beheran, Areson mendi martxa amaitu ondoren partaideak. HITZA



Erletako ikasleak elkarbizitza sendotuz jolas artean

LEITZA » Erleta ikastetxe publikoko ikasleak iragan astean goiz pasa joan ziren Urtora (Gipuzkoa). Elkarbizitza planaren barneko lehen jarduera, jolas handi batekin ospatu zuten eskolako haur eta irakasleek. Animalien familiak osatuz,

adin ezberdinetako haurrekin talde ezberdinak egin zituzten. Horrela, «handienak txikienek eritmorra egokitu ziren, eskutik helduta edo laguntza eskainiz». Elkarbizitza planaren barneko jardueraren helburua, jolas giroan ikastetxeko

haurrek, elkarren arteko harremanak sendotzea izan zen. Irakasleak «gustura eta pozik» agertu ziren, «oso irteera polita» izan zela aipatuz. Handienek oinez egin zuten Leitzatik Urtorako joan-etorria eta txikienek berriz autobusez. A. IMAZ



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaidea: 687 410 022. anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaidea: 687 410 118. leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaideko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan Maite! Irrifarra inoiz kenduko ez digutelako, jo ta ke!
Osasuna, maitasuna ta askatasuna! Zure lehengusuak!



Urte askoan Maite! 26 urte. Argazki hau errepika ez dadin, amnistia eta askatasuna!
Muxu beroak guztien partetik. Ibarrara Herri Ekimena.

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoia ren 10. urteurrenean, Jesus Guridiren *El Caserio* plazaratuko dute urriaren 18an Leidorren. Sarrerak Kutxaren webgunean eta Leidorren.

■ **Tolosa.** TELP ikastaroa antolatuta du Aitzol Euskaltegiak: tentsio uneetan nola jokatu euskaraz ari-tzeko eskubideari eutsiz. 10 orduko ikastaroa bi saiotan banatuta, irailaren 25ean eta urriaren 2an. Izen ematea Udal Euskara zerbitzuan: 943 697453.

■ **Villabona.** Hilaren 27an Villabonan egingo den mugikortasuneko bigarren azokarako materiala Aduna, Asteasu, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udaletxeetan eta Anoetako kiroldegian utzi daiteke.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Sukru Karakus artista turkiarraren pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenen eta iritzien erantzunik.



Urte askoan!

Haritz Mujika Lasa (Asteasu).

Zu re pixkanaka bazoaz gora e!
Ia 13 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta muxu handi bat.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

EUSKAL HERRIA
Basatia
NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

IRAILAK 27 LEHENA DOAN!

6 liburuki
Itsasertza, Basoak eta ibarrak, Labarrak eta haizarteak, Tontor nagusiak, Ibaiek eta ur-jauziak eta Euskal Herriko Atlasak

KARPETA OPARII

Eskura ezazu berriekin

berria